

ZENBAIT GAKO KAZETARIENTZAT ZIENTZIAREN KOMUNIKAZIOAZ

Asier Larrinaga Larrazabal

UEU, 159 or.

Bilbo, 2025

Informazio Zientzietako ikasleentzat Zientzia Kazetaritza betidanik izan da eremu latza, aspergarria, arrotza, jorratzeko zaila. Beren lehentasunak beste batzuk dira: kirol-kazetaritza, informazio politikoa, nazioarteko informazioa, herriko informazioa, gizarte-gaiak eta, akaso, kultur kazetaritza. Eta, jakina, gaur egun izarrak sare sozialak eta adimen artifiziala dira. Kazetaritza ekonomikoa eta zientifikoa *Kazetaritza Espezializatua* irakasgaiaren espezialitate gutxietsiak izan dira beti. Inork gutxi nahi du haiekin dantzatu. Seguru asko ekonomiaz eta zientziaz ikasle gehienek unibertsitatera ekartzen dituzten oinarriak nahiko ahulak direlako. Ez zaie erakargarri egiten, nahiz eta egundoko garrantzia izan.



1. irudia. Zenbait gako kazetarientzat zientziaren komunikazioaz argitalpenaren azala.

Ekonomiak eta zientziak gure egunerokotasunean duten eragina azaltzen zaienean, gauzak zertxobait aldatzen dira. Adibidez, ekonomiak etxebizitzaren prezioarekin lotzen denean, gutxieneko soldataren garrantzia edota KPIaren igoera eta gisa horretako kontuek beren etorkizun hurbilarekin duten lotura zuzenaz ohartzen direnean, orduan ikasleen arreta zertxobait aldatu egiten da. Beste

hainbeste gertatzen da Zientzia Kazetaritza lantzen denean. Klima-aldaketaren ondorioez, energia berriztagarrien onurez eta albo-kalteez edo adimen artifizialaren aukerez eta arriskuez mintzo denean, ordea, batzuk ohartzen dira zein baliagarria den kazetari ona izateko Zientzia eta Teknologiaren inguruko gutxieneko oinarri sendoak izatea.

Gabezia horretatik abiatzen da hizpide dugun Asier Larrinagaren liburua: *Zenbait gako kazetariarentzat zientziaren komunikazioaz*. Biologoa eta filologoa da egilea eta antzematen zaio liburu osoan zehar. Eskarmentu zabala du ikergai honetan eta, gainera, EITBko Euskara zerbitziburua da. Betidanik kezkatu da zientziaren inguruko albiste askoren atzean dagoen oinarri ahulez eta sasizientzien ondorio kaltegarriez. Are kezka handiagoa da gabezia hori, egun albiste faltsuez inguratuta bizi garela kontuan izanda. Sarritan zientzien eta sasizientzien arteko muga ez da bereizten. Merkatuaren interesek den-dena inbaditu dute. Badirudi denak balio duela *klik* edo *like* baten truke.

Hasieratik nabarmentzen da kezka hori liburuan. Guillermo Quindós Mikrobiologia Medikoko katedradunak garbi uzten du Aitzinsolasean «manipulatzaila trebatuek gertaera aizunak eta desira bastartak hedatuz» sortzen dituzten egoerak aipatzen dituenean.

Liburuak bost atal ditu. 0 atala: sarrera, non lanaren helburuak agertzen diren. 1.a: Zientzia zer den (nagusiki metodo zientifikoaren inguruan). 2.a: Kazetari-profesioa zientziari buruzko informazioen aurrean (gehienbat egungo sistema informatiboaz). 3.a: Zientziari buruzko informazioetako arazoak (non, besteak beste, sasizientzien arriskuez eta gai zientifikoaren inguruan sumatzen den profesionaltasun faltaz aritzen den) eta 4.a: Zientziaz informatzeko dekalogoia. Agian azkena da interesgarriena, praktikoena eta ikasleei begira proiektio gehien duena.

Gaur egun erlatibismoa nagusi den garaian, Larrinagak lehenengo ataletik azpimarratzen du metodo zientifikoaren garrantzia: «Zientzian ezagutza berriak lortzea ahalbidetzen duen prozedura erregular, esplizitu eta errepikagarriari metodo zientifikoa deritzo», dio berak, baina «errealitatearen ezagutza gauza monolitikoa» ez dela garbi utziz. Alde horretatik, interesgarria da 31. orrialdean azaltzen duen taula: «Ezagutzaren eraikuntzan ohiko diren zerbait termino» izenburua duena. Bertan, zenbait terminoren esanahia eta adibideak agertzen ditu, hala nola axioma, egitatea, hipotesia, legea, teorema eta teoria. Metodo zientifikotik kanpo ez dago zientziarik. Ideia hori sarritan errepikatzen da liburu osoan zehar eta horregatik gogor jotzen du sasizientzien kontra, bereziki homeopatiaren aurka; izan ere, oraindik Internetera joz gero sasi-diziplina hori «sendabide zientifiko eta eraginkor» gisara azaltzen da hainbat webgunetan.

Bistan da, pandemiak geroztik batik bat, arrakala handia dagoela instituzioen eta herritarren artean, baita komunikabide eta audientzien artean ere. Populazioa gero eta mesfidatiagoa bihurtu da. Gero eta jende gehiagok zalantzan jartzen du dena: irakasleen lana, medikuen jakintza, kazetarien profesionaltasuna eta zientziaren autoritatea, besteak beste. Ziurgabetasuna izugarri zabaldu da. Munduan kaos-sentipena gero eta presentetago dago bizitzaren alor guztietan: nazioartean, egoera

politiko polarizatuan... Testuinguru horretan, ustez ziurtasuna eta konponbide errazak eskaintzen dituzten lasterbideek oso sarbide ona daukate gizartean. Sasizientzien arrakasta horren adierazle da. Horregatik azpimarratzen du hainbeste Larrinagak ideia hau: denbora eta interes handia eskaini behar diogu sasizientziek —astrologia, homeopatia, parapsikologia,...— duten oihartzuna prebenitzeari.

Bigarren atalean, egileak garbi uzten du infoentreenimenduak sortzen dizkion kezkak: «Informazio eta entretenimendua nahasten direnean (...) esan daiteke informazioa galtzaile ateratzen dela». Horregatik azpimarratzen du, behin eta berriz, kazetari bidegilearen rola. Bere ustez, kazetari horrek «kontzeptuak eta terminoak argitu behar dizkie herritarrei, interes-guneak nabarmendu, eta jakingarriekin osatu». Eskertzekoa da egileak testu osoan zehar eta, bereziki atal honen amaieran, zientziaren komunikazioan sarritan agertzen diren genero-esklusioko jokabideei aurre egiteko ematen dituen irizpideak.

Egileak zientziaren inguruko informazio-iturriak ditu ardatz hirugarren atalean, batik bat, zenbait praktika txarrek sortutako arazoak. Atal mardula da, adibidez osatua. Interesgarria zalantzarik gabe, baina faltan sumatzen da gaur egun Zientzia Kazetaritzako informazio-iturri nagusien deskribapen edo azalpen bat. Esaterako, zeintzuk diren gaur egun zientzia-ekoizlerik handienak, ikerketa-zentroak, albiste-agentzia espezializatuak, dokumentazio-iturriak, aldizkari espezializatuak eta abar. Gabezia hori nabarmen sumatzen da erabilitako bibliografian ere. Esaterako, Euskal Herrian zenbait eragilek lan dezente egin dute azken hamarkada hauetan eta horren inguruan ezer gutxi aipatzen da; adibidez, EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak edota Elhuyar fundazioak —azken honek EITBn bertan egindako saio sarituak, bai aipatzen dira liburuaren amaieran—. Nazioartean erreferentzialak diren zenbait autore ere ez dira agertzen. Seguru asko, liburu honen helburu nagusia ez zen horren inguruan bibliografia zehatz bat eskaintzea, baina bidegile izan nahi duen kazetari zientifikoari ongi legokioke, alde horretatik pistaren bat edo beste eskaintzea.

Azken atalean agertzen den Zientziaz informatzeko dekalogoia bereziki interesgarria da. Puntuz puntu aipatzea merezi du: 1. Zientziaren komunikazioak bere tarte behar du. 2. Sasizientzia ez da albiste. 3. Errespetua pertsoneri zor zaie, ez haien ideiei. 4. Hedabideetan koordinaturik jokatu beharra dago. 5. Objektibotasuna ez da alde guztien iritzia biltzea. 6. Ez dago entretenimenduari uko egin beharrik. 7. Gauzak adierazteko moduari arreta eskaini behar zaio. 8. Kontakizun transmedia baliabide garrantzitsua da kazetari bidegilearentzat. 9. Zientziaren komunikazioa zientzia-politika publikoaren elementua da, eta 10. Ondo zaindu behar da kontaktu-agenda.

Labur esanda, Asier Larrinaga Larrazabalek egindako ekarpena interesgarria eta baliagarria da Zientziaren komunikazioan abiatu nahi duen edonorentzat. Are beharrezkoagoa da munduan sumatzen den testuinguru nahasi honetan.

Txema Ramirez de la Piscina Martinez

